

BAKION MEZA BARRIA

Ramon Goiarrola Belda dot izena, 32 urteko gaztea naz. Gizakiak iretargia leenengo biderrez zapaldu eben egunean, 1969.eko bagilaren 20an, Bilbon jaio nintzan. Niretzako Bilbo eta Bakio banandu ezinekoak dira. Bakion azi eta ezi nintzan-eta, "Arrien" etxean, atan be. "Itxas-Alde" dantza taldean 7 urte emon nebazan. Arrotasunez esan neike, "Agintariena" izeneko dan-

tzan, 5 urtean, ikurrina alborik albo aidean erabili izan dodala.

Naparroako Ikastetxe Nagusian medikuntzea amaitu ostean, Erroman teologia ikasi neban. Abadetzarako deitua izan nintzan, gorputz-arimak osatuteko, uste dot. 2002ko urriaren 1ean abadetzea artu neban Torreciudad-en eta Meza Barria, urrengo domekan, Bakion, Andra Mariaren egunean.

"Pozik egoteko eguna da
danok gaituzu begira
zure apaizgintzak geure barruan
sortu dauan ikusmira.
Meza Barria, zoragarria
bakiotarrak arro dira.
Otoitza lagun, kementsu izan
ez begiratu azpira
egin dozunaz aberastu da
erri onetako kondaira.

Danon zerbitzaria izateko
artu dozu abadetza,
Kristoren mezua zabaltzeko
bai adoretzu zabilta.
Gauzea ondo aurekatuta:
da Birjinaren jaiotza.
Bera zan apal eta umila izaten
oparoa da emoitza.
Zorionak, Ramon, amaitzeko
leertzen dogu biotza."

OARRA: Ramonek Meza Barria emon eban egunean kantatutako bertsoak dira. Bertsoen egilea: Mari Karmen Gabikagoieazkoa.

JON AINGERU GOIKOETXEA

JATABE

Izen biko erria dogu Bizkaiko Maruri-Jatabe. Izen ofizial bi egon arren -bitzuak euskaldunak, ganera- bertako zein inguruko errietako euskaldunen agoetan Jatabe (yatábe, dxatábe) izena baino ez da entzungo euskeraz.

Bertakoak, jatabarrak (yatábarrak, dxatábarrak) dirala. Azken asteotan, barriz, Maruri izena baino ez da zabaldu zuen artean.

Nire eritxi apalean, euskal erabilkereari bidea emon bearko leuskioe euskeraz diarduen irrati, telebista, egunkari, aldizkari zein bestelango edabideak, idatziz zein agoz: Jatabe eta jatabarrak. Esaterako, "Jatabeko abadea ez da jatabarra".

Gora, bada, Jatabe eta jatabarrak.

Iniaki MARTIARTU
BAKIO

